

Marka onak Udaberriko KroSean

850 bat lagunek
parte hartu dute ▶ 5



DONOSTIAKO EGUNKARIA ▶ Astelehena ▶ 2006-03-20 ▶ II. urtea ▶ 315. zenbakia ▶ www.irutxulokohitza.info

Gaur Peruene, Herrerako azken baserria, botatzen hasiko dira

ETXEBIZITZAK ▶ Baserria dagoen tokian etxebizitzak egitea aurreikusi dute Herrera berritzeko planean

PENA ▶ Herreratarrek pena agertu dute; makina bat alditan Peruenera esne bila joandakoak dira asko ▶ 3



San Luis plazako Peruene baserria; Herrerako azken baserria. RAUL PEREZ

EUSKARA ▶

Udal ordenantzak errespetatzeko eskatu dio Batzenek Udalari

Zirkuek, iragarkietan, euskara erabili behar dutela gogorarazi dio ▶ 2

BERRITZE LANAK ▶

Norteko geltokiak itxura berria izango du

Berrikuntza egingo dute eraikinean, eta ia zerbitzu guztiak lekuz aldatuko dituzte ▶ 2



Norteko geltokia. RAUL PEREZ

MUSIKA ▶

Ortots diskoetxe sortu berriak metal doinuak zabaldtu nahi ditu

Iñaki Esnaola intxaurrondotarra da proiektuaren bultzatzaileetako bat ▶ 6

Eskei hantia dela eta,
Eskeia partikularak imatuko

**IRAKASLEAK eta MAISU-MAISTRAK
BEHAR DITUGU**

ikasgai eta ikasmaila guztietarako

Bidali ezazu CV eta argazki bat
donostia@acadomia.es
helbidera
www.acadomia.es

ACADOMIA
IRAKASLEA ETXERAN

UDAL ORDENANTZAK ▶ KARTELAK

Udal ordenantzak hizkuntzari buruz jasotakoa errespetatzeko eskatu dio Batzenek Udalari

Laster etorriko den zirkuaren iragarkiak euskaraz edo elebitan jarri behar direla gogorarazi du

ERREDAKZIOA

Euskalgintzako hainbat talde —AEK, Bagera, EHE...— biltzen dituen Euskarak Batzen elkar-
teak hizkuntz eskubideak eta udal ordenantzak errespetatzeko eskatu dio Donostiako Udalari. Zehatz mehatz, martxoaren 29an Txinako Zirkua Nazionala etortzeko denez, ikuskizuna iragartzeko kartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dituzte-

la gogorarazi dio Batzenek Udalari. Ramon Etxezarreta Euskara zinegotziari eta Bide Publiko Sailari zuzendu dizkio eskaerak, hain zuzen ere, Euskarak Batzenek.

Eskaeretan, udal ordenantzen 25.3 artikulua hizkuntzari buruz dioena gogoratu du elkar-
teak: «Ferieta, zirkuetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki edo kartelak euskaraz edo euska-

raz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera».

Aurretik hirira etorri diren zirkuek artikulua hori ez dutela errespetatu gaineratu du Batzenek.

Otsailean ere urraketak

Hizkuntz erabilerari buruzko udal ordenantzen urraketa ez da berria. IRUTXULOKO HITZA egunkariak joan den otsailean argitaratu zuenez, Donostiara

etorritako zirkuek udal ordenantza horiek urratu egin zituen. Horrez gainera, gizalegari buruzko araua ere ez zuten betetzen zirkuaren kartelak. Ondoren, Bide Publiko Sailak erdiguneko kartelak kentzeko agindu zuen, hizkuntzari buruzko udal ordenantzen urraketa baina, gizalegari buruko arauari begiratu.

Ildo horretatik, berriz ere gauza bera gerta ez dadin eta donostiarren hizkuntz eskubi-



Zirkuaren kartelak, gaztelaniaz...l.

deak errespetatu daitezke eskatu die Euskarak Batzen elkar-
teak udal arduradunei.

TREN GELTOKIA ▶

Norteko geltokiaren eraikinak barrutik itxuraldatuko dituzte

Egiara joateko eskaileren eraikina berritzen ari dira orain; jatetxea jarriko dute bertan, beheko solairuan



Tren geltokiaren kanpoko itxura ez da aldatuko, baina barrukoa bai; erabat, gainera. R. PEREZ

RAUL PEREZ

Norteko tren geltokiaren eraikinak barrutik zeharo itxural-

datuko dituzte; zerbitzu guztiak lekuz aldatuko dituzte.

Joan den urte bukaeran, lan garrantzitsua egin zuten nase-

tan; igogailua jarri zuten, ezin-
duak edota haur kotxeekin da-
biltzanek nasa batetik bestera
errazago joateko.



Eskaileren eraikina berritzen ari dira orain. R. PEREZ

Orain, eraikinen barrualdea-
ri heldu diote. Geltokia eta Egia
arteko eskaileren eraikina ber-
ritzen ari dira. Eraikin horren
beheko solairuan, taberna edo
jaketxea jarriko dute, eta goiko
solairuan, Trenbidearen Lagu-
nen Elkarteak izango du egoi-
tza. Elkarrekin, gaur egun,
Norteko geltokitik urrun, In-
txaurrondoko Zubiaurre pase-
alekuan, du elkargune. Jatetxe-
arekin eta Trenbidearen Lagu-
nen Elkartearen egoitzarekin
batera, Renferen zenbait bule-
go ere ipiniko dituzte.

Eraikin nagusian

Obra horiek alde batera utzita,
eraikin nagusian —txartelde-
gia eta dendak dauden tokian,
alegia— zerbitzuak lekuz alda-
tuko dituzte. Itxuraldaketa era-
betea izango da. Esate bate-
rako, txarteldegia orain pizze-
ria dagoen tokira eramango
dute. Maletak eta beste sartzeko
armairuak gaur egun txar-
teldegia dagoen lekura era-
mango dituzte. Bestalde, txar-
teldegia eta pizzeria arteko

dendak —besteak beste, libu-
ru denda eta tabako denda
daude — ere lekuz aldatuko di-
tuzte. Horri esker, txarteldegia-
ren eta armairuen artean, kor-
ridore zabala geratuko da.
Korridore horren bukaeran
—hau da, pizzeria dagoen to-
kian — beiratea jarriko dute.
Eraikin nagusiaren barrualdea
zeharo itxuraldatuko duten
arren, ez dute itxi beharko, la-
nak zatika egingo baitituzte.

Dagoeneko berritzen ari di-
ren eraikina apirilera bukatu
nahi dute. Eraikin nagusiko
obrak noiz hasi eta noiz buka-
tuko dituzten ez dago zeharo
zehaztuta, ordea. Izan ere, argi-
tzeke dago pizzeria noiz hustu-
ko duten. Dirudienez, urte bu-
kaeran hustuko dute. Hori
gingo balute, itxuraldatze la-
nak ezin izango lituzteke dato-
rren urtea baino lehen bukatu.

Eraikin nagusia Norteko gel-
tokia egin zuten garaikoa da;
1864. urtean inauguratu zuten.
Azken urteetan tren geltokia-
ren eraikinean egindako lan
nagusiak izango dira honako
hauek.

HERRERA ▶

Agur, Peruene

Gaur hasiko dira botatzen Herreran geratzen den baserri bakarra

RAUL PEREZ

San Luis plazako Peruene baserria lurrera botatzen hasiko dira gaur. Herrera azken baserria. Herrera zaharberritzeko planean Peruene baserria dagoen lekuan etxebizitzak eraikitzea aurrerakusi dute.

Patxi eta Jose Luis Mendizabal anaiak arduratu dira azken urteetan baserriaz. Patxi Mendizabal ziur da baserriak 500 urte baino gehiago dituela. «Altzako parrokia duela 600 urte egin zuten. Eta eliza egiteko, ezinbestekoa zen inguruan jendea izatea; baserriak egoitea, alegia. Ziurrenik, ordurako bazegoen Peruene». Altzako Historia Mintegiko kideek beste hipotesi bat dute. Haien ustez, litekeena da XVIII. mendean eraiki izana. Beraz, hipotesi hori egia balitz, baserriak 200 edo 250 urte inguru izango lituzke.

Mendez mende, hamaika familiar baserria bizileku izan dute. Eta azkena, Mendizabalaritzabal sendia izan da. Gregorio Mendizabal hernaniarra eta Nicolasa Iartzabal errenteriarra 1925. urtearen inguruan hasi ziren Peruene bizitzen, maizter. Eta 1958an baserria haien esku geratu zen behin



Herrerako San Luis plazako Peruene baserria. Atzean, Peruene-Berri etxea. Gaur egun ez du lur askorik, baina garai batean baserriko lurak oso zabalak ziren. R. PEREZ

betiko. Ondoren, Gregorio eta Nicolasa senar-emazteen ondorengoek hartu zuten haien gain baserriaren ardura.

Gehienbat abeltzaintzarekin lotu da azken urteetan Peruene, behiak izan baitituzte Mendizabaltarrek. Hala eta guztiz ere, garai batean, sagardoa egiten zuten; sagardo hori Herreran bertan eta Trintxerpe aldean saltzen zuten. Gaur egun-

go herreratar gutxi gogoratzen omen dira Perueneko sagardoarekin, ordea. Esnearekin, aldiz, bai, gogoraraten dira. Bai horixe! Marmitarekin jaisten baitziren esne bila Peruenera. Horrekin lotuta, Patxi Mendizabalek gogoan du jaioberriei esnea ematerik ez zuten inguruko ama asko baserri hurbildu ohi zirela esne bila.

Baserrian garai batean zego-

en iturria ere asko estimatzen zuten herreratarrek. XX. mende hasieran, Altzako udaletxean egindako bileretan, iturria izan zuten eztabaidagai behin baino gehiagotan. Sasoi hartan, tunel bat egiten ari ziren Herreran, eta bertakoak kexu ziren, ohi baino ur gutxiago eta okerragoa isurtzen zuelako iturriak. «Herribildu honetako herriarrek iturria erabili izan dute aspalditik», esaten zuten aldatzarrek udaletxeko bilere-tan.

Garai batean, oso zabala

Herrera aldean XX. mende osan izandako aldaketek eragin handia izan zuten Peruene: trenbidea, tranbia, saihebidia... Eraikin eta errepide artean geratu zen, azkenean. «Baserriak lursail izugarri zabalak zituen; Altzako kanposanturaino iristen ziren. Saihebidia, Txingurriko etxeak eta abar egin zituztenean, ordea, galdu egin genituen lur haiek», dio Patxi Mendizabalek.

Peruene, ozta-ozta, XXI. mendera iritsi da. Herrera beste baserri batzuek, aldiz, XX. mendean agur esan ziguten. Gaur egun Sarriegi etxea dagoen tokian, Herria baserria zegoen; pilotalekuaren lekuan, bi baserri zeuden... Eta Herrera eta Intxaurrondo arteko La Fabrica baserria ere nahiko eza-guna zen.

Herreratarrek etsipenez hitz egiten dute Perueneri buruz. «Horrenbeste porlan artean, azken eraikin zaharra da. Auzotarrok proposatu genuen

Ez dute aparkalekua egingo

Joan den astean, Herripe auzo elkarteak bilera egin zuen udal ordezkari batzuekin. Besteak beste, Jorge Letamendia Hirigintza zinegotzi eta Ana Rivilla Bide Publiko Sailaren arduradunarekin elkartu ziren, Herrera zaharberritze lanez hitz egiteko.

Herrerekoak ez ziren oso pozik atera bileratik. Dioetenez, San Luis plazan aparkalekurik ez dutela egingo baieztatu zieten udal arduradunek, ez omen delako bate-ragarria uholdeak sailheste-ko egin beharreko lanekin. Auzo elkarteak proposatu zuen plazan aparkalekua egitea.

Bestalde, Herripek jakinarazitakoaren arabera, Udalak berritze lanak lau zatitan egin nahi ditu. Fase bakoitzean behin behineko bideak egokituko dituzte, bai oinezkoentzat bai autoentzat. Aste Santuan hasiko litzateke berritze lanen lehen zatia. Auzo elkarteak beldur da, hala ere, ez ote den anabasa izango.

Udalak gutuna bidaliko die herreratar guztiei plaza inguruko lanek ekarriko dituzten zirkulazio aldaketek berri emateko. ◀

Herrerako kultur etxea bertan jartzea. Pena da ideia hori aurrera ez eramana izana», diote Herrera elkarteko zenbait kidek. Aranzadi elkarteak ere ikerketa egin zuen 2002an, eta baserria babestuta ez zegoen arren, Udalarik tentuz jokatzeko eta bota aurretik ikertzea aholkatu zion. Ba omen da, baserriaren azpian, 300 urte inguruko harraska—goiko argazkian, aurrean ikusten diren etxetxoaren azpian— Kontuak kontu, esan bezala, baserriak bereak egin du.

Mozkor Frentekideok taldeko lagunek ere baserriaren falta atzemango dute. Izan ere, urtero, Herrera jaietan, baserriaren bazkaltzen baitzuten, pala txapelketaren finalen ondoren. «Horrek prestakuntza aldetik, lan gehiago eskatzen zuen, baina merezi zuen», diote taldeko kideek.

Baserriaren izana alde batera utzita, izenaz ere ondo gogoratzen dira San Luis plaza ingurukoak: «Jendeak Peruene esaten dio, baina Peruene-zar du benetako izena. Horregatik, haren atzeko etxe altua egin zutenean, Peruene-Berri izena jarri zioten».



Peruene baserriaren argazkia. Gutxi gorabehera, duela 62 urtekoa da. Argazkian, Gregorio Mendizabal eta bere alabak, Anttoni eta Mañoli, ageri dira ALTZAKO TOKIKO BILDUMA/EMALEA: ANDONI AGINAGA

ARRAUNA ▶ UR KIROLAK

Itsasotik haratago

Uretan ez ezik, gimnasioan ere entrenatzen dira arraunlariak, sasoi puntu egokiaren bila; Ur Kirolak en egoitzan ibili da IRUTXULOKO HITZA

AMAIA PORTUGAL

Eguneroko bizimoduan, arraunlariak korrontearen kontra egiten dute igeri. Asteburuetan, jendeak jai izaten duenean, uretara ateratzen dira. Astegunetako entrenamenduekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Izan ere, eguneko eginbeharrak bukatu ondoren jendea etxera joaten denean, orduantxe hasi ohi da arraunlarien lana.

Iluntzeko zortziak dira, Loiolako Ur Kirolak en egoitzan. Inguruetan ez dabil ia inor. Egoitza barruan, baina, bizitasuna nabari da. Hamarnaka lagun dabil bertan; luzaketak egiten batzuk, ergometroan jo eta ke besteak. Ordurik jendetsuenean jo dugu hara: kadeteak entrenamendua bukatzekotan dira, jubenilak bete-betean ari dira, eta seniorrak beroketak egiten dabilta. Azken hauen entrenamendua jarraitu du IRUTXULOKO HITZAK.

Hamahiru lagun etorri dira gaurko saiora —hamabost dira, guztira—. Luzaketak egiten ari dira entrenamendu gelaren atzealdean. Abdominalak datoz gero, eta bizkarra, besoak eta hankak indartzeko ariketak, jarraian. Beroketak bukatuta, pisuekin hasi dira, gu Joseba Clavijo entrenatzailearekin hitz egiten ari ginen bitartean. Hark azaldu bezala, entrenamendu hauek erresistentzia lantzeko balio dute, bapit: «Arraunean indarra oso garrantzitsua da, palada bakoi-tzean egin beharreko ahalegina beste edozein kiroletan baino askoz ere handiagoa baita». Beraz, arraunlariak neka ez daitezten, neguan gogor entrenatzea funtsezkoa dela dio Clavijok: «Entrenamendu motzak balira, gero estropadetan ezin izango genioke erritmoari eutsi. Intentsitate txikiarekin eta bolumen handiarekin lan egin behar da hasieran, eta pixkanaka gero eta denbora gutxiagoan entrenatu, intentsitate handituz».

Urriaren hasieraz geroztik ari dira lanean Urkin, astean sei egunetan. Astelehene, ostegun eta ostiralean lan fisikoa egiten dute: korrikaldiak eta ergometroa, eta pisuak, bi egunetan. Ordu eta berrogei minutuko saioak, gutxi gorabehera. Astearte, larunbat eta igandetan, uretara ateratzen dira, lan teknikoa egitera. «Oso jende



Urkiarra arraunlari gazteak jo eta ke arraunean, Loiolako egoitzako ur putzuan. AMAIA PORTUGAL

gaztea dator, eta mamitu beharra dute», dio Clavijok. Ez du arrazoi falta: 30 eta 24 urteko arraunlari bana dute, baina gainontzeko guztiak 18 eta 20 urte bitartekoak dira.

Erantzunarekin pozik

Gaztetasun hori kontuan hartuta, are harrigarriagoa dirudi

talde honek arraunarekin halako konpromiso handia edukitzea, batez ere, tartean, ikasle mordo dagoelako. Clavijoren arabera, Arrasaten ikasten ari den eta txandaka lan egiten duen arraunlari bana kenduta, inork ez du huts egiten entrenamenduetan. «Hasieratik hitz egin genuen honen inguruan haiekin, jendez nahiko justu

baikenbiltzan uretara ateratzeko, eta ez dugu inolako arazorik izan. Oso pozik gaude, jendearen seriotasunari esker taldea osatzen ari garelako», azaldu du. Asteburuetan entrenatu beharra ere ez omen da arazo: «Betidanik ezagutu dute hau, ohitura kontua da».

Entrenamenduetan ez ezik, handik kanpora ere beren burua zaintzeko esaten diete prestatzaileek arraunlariari, eta oro har, kasu egiten omen diete. «Bestela, azkenean, zeure buruari harrika ari zara», dio Clavijok. Hala ere, noizean behin *amnistia* ematen dietela


esan digu: egunen bat libre as-teburuan, edo talde afariren bat, denboraldi luzea arintzeko. «Ondo dago hau serio hartzea, baina gu ez gara arraunlari profesionalak. Jendea gustura etortzea eta giro ona sortzea da kontua».

Seniorrek gaztetxoenen eredu izan behar dute; are gehiago, harrobiaz horrenbeste arduratzen den talde batean. Arrauna sustatzeko, Kontxan sartzea beharrezkoa den galdetu diogu Clavijori: «Nik ez diot garrantzirik ematen horri. Funtsezkoena hor goian talde bat dagoela ikustea da. Lan eginez gero, goian bidea egina izango dutela ikusi behar dute gazteek». Horren harira, Urkiren egitura berrantolatu eta proiektu berri bati ekin diote elkarrean orain: «Jende gazteari jarraipena eman nahi diogu, gero goi mailara iristeko aukera izan dezan». Proiektu honi denboraldi honetan ekin diotenez, seniorrak ere hutsetik hasi dira, eta oraindik ez dira gazteenentzako eredu. Laster izatea espero dute, ordea.

Ez da sakrifizioa

Clavijorekin hitz egin bitartean, seniorrak bi multzotan bereizi dira. Haietako bat pisu ariketak egiten ari da gimnasioan. Neguan ez ezik, denboraldi osoan aritzen dira bertan. «Gimnasioan bai, urte osoan lan egiten dugu. Kontua da udara gerturatu ahal gimnasioaren ondorengo ariketak aldatzen ditugula. Korrika egin edo ergometroa hartu beharrean, uretara jogan», dio Urkiko entrenatzaileak.

Talde hori goiko gimnasioan dagoen bitartean, beste taldekoak beheko ur putzuan dira, hogei bat minututan korrika egin eta gero. Eserlekuetan neurriak egokitzen eta arraunak jartzen ari dira. Xabier Renteria pasaitarra da arraunlari horietako bat. 19 urte ditu Renteriak, eta sei baino gehiago daramatza arraunean; haietatik hiru, Urkin. Entrenamenduak gogorak ote diren galdetu diogu: «Hasi berritan, ohitura faltarik edo, bai. Baina urteak joan ahal lasaia daramazu kontua». Garai honetan hotz eta ilun dagoenez, astegunetan entrenatzena joatea nekagarria dela dio Renteriak. Asteburuetan, trainerua ateratzen dutenean, eramangarriagoa omen da, «baina igandeak beti igandek!». Hala ere, ez du uste sakrifizio handia denik: «Koadrila parrandatik itzultzen denean zu entrenatzena joaten zara, baina gustukoa baduzu... Konpentsazioa handiagoa da, nire ustez, sakrifizioa baino».



Pisu ariketak ezinbestekoak dira erresistentzia lantzeko. A. P.

EGUTEGIA ▶

Hona hemen datozen hilabeteetarako Ur Kirolakeko seniorrek zehazturik duten egutegian kontuan hartzeko zenbait data.

Apirilaren 29tik maiatzaren 14ra.
Gipuzkoako Trainerillen Liga.

Maiatzaren 21a eta 22a.
Gipuzkoako Trainerillen Txapelketa.

*Hemendik aurrerako egutegia zehazteke dute. Bestalde, prestatetaren baitan, aulki mugikorreko probaren batean parte hartzeko asmoa dute Ur Kirolakeko arraunlariak.

ATLETISMOA ▶ UDABERRIKO IV. LASTERKETA



Hamar kilometroko lasterketa egin dute korrikariek. NAGORE IRASTORZA

David Martinez eta Eva Esnaola garaile, Udaberriko Krosean

850 lagunek parte hartu dute lasterketan, joan den urtean baino 200 gehiagok; denbora bikainak egin dituzte

NAGORE IRASTORZA

Giro ederra izan zen atzo Donostiarrak elkarteak antolatutako Udaberriko IV. Lasterketan. Eguraldia lagun izan zuten korrikariek, eta lasterketako partaideak animatzera hurbildu ziren senideak eta lagunak. Gizezkoetan David Martinez lasartearrak irabazi zuen lasterketa, eta emakumezkoetan Eva Esnaola hernaniarra izan zen nagusi.

Abiadura bizian irten ziren EHUren Ibaetako campusetik Udaberriko Lasterketan parte hartu zuten 850 lagunek goizeko hamarretan. Guztira, hamar kilometroko ibilbidea egin behar zuten. Antiguatik Kontxa aldera joan ziren, handik San Martin kalera, eta Kursaal zubira, ondoren; Parte Zaharrean buelta eman ondoren, berriz

ere Antiguarako bidea hartu zuten.

Hasieratik aurretik ibili zen David Martinez lasartearra, eta lehena izan zen helmugara iristen, 32 minutu eta 36 segundoko denborarekin. Oso gertu iritsi ziren Javier Colomo (33.13) eta Iñaki Lopetegui (33.36) korrikaririk.

Emakumezkoen artean, Hernani Klubeko Eva Esnaolak irabazi zuen lasterketa, 41 minutu eta 26 segundorekin. Bigarrena Maria Jesus Gonzalez (41.38) izan zen, eta hirugarrena, Maria Mendibe (41.57).

Aurpegi ezagunak

Aurpegi ezagunak zeuden atzo korrikalarien artean. Dorsalean lehen zenbakia eraman zuten Abraham Olano txirindulari ezagunak eta Leire Eloseg maratoiko munduko txapeldunak. Santi Auzmendi jostunak eta Cristina Uriarte Ibaetako campuseko errektoreordeak ere lasterketa herrikoian parte hartu zuten.

Inoiz baino partaide gehiago izan du aurten goizko lasterketak. Guztira, 920 lagunek eman zuten izena, nahiz eta azkenean 850 aurkeztu ziren; iaz baino 200 lagun gehiago izan dira aurten.



David Martinez saria jasotzen. N.I.

SAILKAPENA ▶

GIZONEZKOAK

1. David Martinez	32.36
2. Javier Colomo	33.13
3. Iñaki Lopetegui	33.36

EMAKUMEZKOAK

1. Eva Esnaola	41.26
2. Maria Jesus Gonzalez	41.38
3. Maria Mendibe	41.57

DONOSTIARRAK TALDEA

1. Mikel Colino (gizonezkoak)
1. Leire Eloseg (emakumezkoak)

UNIBERTSITATE MAILA

1. Luis Moreno (gizonezkoak)
1. Enara Uranga (emakumezkoak)

DATUA ▶

126

lagunek, 40 minutu baino gutxiago. Lasterketan parte hartu zuten 126 korrikalarik 40 minutu baino gutxiago behar izan zituzten hamar kilometroko ibilbidea egiteko.

IZOTZ HOCKEYA ▶

Txuri Urdinek galdu eta agur esan dio Ligari

Txuri Urdin izotz hockey taldeak 9-2 galdu zuen herenegun gauean Puigcerdan (Katalunia). Neurketa parekatua izan zen, emaitzak kontrakoak adierazi arren. Bigarren zatian, bost minututan, astindua jaso zuen Txuri Urdinek. Joan den asteburuan ere galdu zuenez (2-6), agur esan dio Liga txapelketari. Liga atzean utzita, Errege Kopa izango da Txuri-ren azken erronka, denboraldia bukatu arte. Apirila hasieran jokatu dute Kopa Puigcerdan.

SASKIBALOA ▶

Atletikok Leonen galdu du, gaizki jokatu gabe

Donostiako Atletikok 82-71 galdu zuen atzo Leonen aurka. Donostiako taldeak oso gaizki hasi zuen partida, eta etxekoek alde handia lortu zuten. Hala eta guztiz ere, Aitor Uriondoren mutilek, atsedendirako, neurketa orekatu zuten. Atletikok irabazteko aukera ere izan zuen, baina Leongoek aldea handitu zuten partidaren azken txanpan berriro.

FUTBOLA ▶

Añorgak 3-1 irabazi dio San Inaziori

Añorgak Bilboko San Inazio hartu zuen atzo mendean etxean: 3-1. Leire sartu zuen Añorgaren lehen gola, baina Bilboko taldeak partida berdindu zuen. Hala ere, Añorgak beste bil gol sartu zituen; Maialenek sartu zituen biak. Añorga bigarren da Espainiako Lehen Mailako sailkapenean, eta postu horretan bukatuko du denboraldia; Realak ziurtatua du lehen postua, eta hirugarren eta laugarren postuak urrun dituzte añorgatarrek.

BELAR HOCKEYA ▶

Atletikok eta Realak galdu egin dute

Donostiako Atletiko belar hockey taldeak 2-4 galdu du Athletic Terrasaren kontra. Dena dela, Terrasarentzat ez da erraza izan donostiarrei irabaztea. Binako berdinketarekin iritsi dira atsedendira, eta azkenean, bigarren zatian, bi gol sartu ditu Terrasak. Bestalde, Realeko neskek oso ondo jokatu dute Madrilen, Club de Campo taldearen kontra, baina 4-2 galdu dute. Bi goleko abantaila izan dute, baina azkenean madrildarrak nagusitu dira.

ESKIA ▶

Jon Santacana, zazpigarren slalom proban

Zazpigarren sailkatu da Jon Santacana eskiazaile donostiarra, Paraolimpiar Jokotan, slalom proban. Ikusmen arazoak dituzten mailan parte hartu du. Torinon (Italia) jokaturako Paraolimpiar Jokotan izateko ahalegin berezia egin du Santacana. Izan ere, duela bi hilabete erori egin zen, eta tibia eta peronea puskatu zituen. Hasieran parte hartzerik ez zuela izango pentsatu zuen, baina errehabilitazioarekin osatu egin zen.

FUTBOLA ▶

Tolosako Orixek irabazi du Coca Cola Kopa

Tolosako Orixek ikastolak irabazi du aurtengo Coca Cola Kopa. Orixek Arabako San Viator ikastetxeari 2-1 irabazi zion atzo eguerdian, Zubietan jokaturako finalean. Donostiako taldeei dagokienetz, Aieteko Jesusen Alabak, Intxaurrondoko Maria Auxiliadora eta Bidebietako Institutuko taldeek ezin izan zituzten kopako final laurdenak gainditu.

FUTBOLA ▶

Sanse esku hutsik bueltatu da Zamoratik

Sansek 2-0 galdu zuen atzo Zamoran. Sansek, batez ere lehen zatian, gola sartzeko aukeraren bat izan zuen arren, ez zuen partida batere ona egin. Zamorak partida bukatzeko 20 minutu falta zirela sartu zuen lehen gola eta bigarrena, luzapenean. Galdu arren, Jose Ramon Eizmendiren mutilak Bigarren B Mailako lehen multzoko bigarren postuan dira. Zamoran, beraz, Realak —Errege Kopan— eta Sansek galdu dute denboraldi honetan.

MUSIKA ▶



Donostiako Azken Garraisa taldeak parte hartu du Ortots zigiluak kaleratu duen lehen lanean, 'Altzairu gorria' bilduman.

Irratitik
diskora

Metal musika du pasio Iñaki Esnaola intxaurrendotarrak. Horregatik, duela lau urtetik, Egiako Ttan Ttakun irrastian, *Burdinola* saioa egiten du. Metalari buruz, noski. Irratsaioan bertan, *Herriko Burdina* izeneko atal bat sortu zuten, Euskal Herriko taldeei buruzkoa. Irratitik internetera egin zuten salto, eta *Herriko Burdina* webguneari ekin zioten. Metal musikaren adar guztiak lotzeko asmoz sortu zuten webgunea, eta baita taldeei babesa eskaintzeko ere —batik bat azpiko taldeei, underground mailakoei—. Bi urte geroago, bilduma bat osatzea bururatu zitzaizen. Bilduma horren aitzakian sortu dute, orain, Ortots Burdin Hotsak diskoetxea. Dena dela, ez dute iragana ahazteko asmorik, eta Esnaolak webgunearekin eta Ttan Ttakuneko saioarekin jarraitzeko asmoa du. Beti ere, metala zabaltzea helburu. ◀

Ortots, metal hotsen habia

Iñaki Esnaola intxaurrendotarrak Ortots Burdin Hotsak zigilua abiarazi du, metala bultzatzeko asmoz

ANTTON FERNANDEZ

Ortots Burdin Hotsak zigilua sortu du Intxaurrendon Iñaki Esnaolak, beste lau lagunekin batera, heavy metal musika egiten duten eta ohiko diskoetxeekin diskorik argitaratu ezinda dabilzan taldeei aukera emateko asmoz. Sortu orduko, gainera, lehen lanak plazaratu dituzte; *Herriko burdina*, *Altzairu gorria* izeneko bilduma, eta Denial taldearen *Phobia* diskoa. Iñaki Esnaolak berak eman digu proiektu honen berri.

Ez omen da garai onena musikarentzat. Aspalditik entzuten ari gara hori. Musika munduan ondorengo hitza ere ez da gutxiagotan entzun azken aldian: autoekoizpena. Hain zuzen, diskoetxeen krisia dela eta, hamaika musika talde haien kabuz argitaratzen hasi dira. Autoekoizpena baliatzen duten taldeen inguruan, Ortotsen pareko proiektuak sortzen ari dira. Ortotsi dagokionez, haien kasa diskoa kalerratu nahi duten taldeak sustatzen aritzen da.

Euskal Herria ardatz hartuta eta interneten laguntzaz, beraien lanak ahalik eta urrunen



Iñaki Esnaola, haien lehen diskoaren azalaren azpian.

hedatzeko asmoa dute Ortotskoek. Haiek bilatzen dituzte taldeen lanen banatzaileak, eta haiek ahalegintzen dira taldeak musika katalogorik onenetan sartzen. Hori bai, zuzeneko berotasuna baztertu gabe. «Aurrerantzean, Guardetxetik pasako dira Ortotsen ekoizten dituen taldeak», esan digu Esnaolak. Zigilua sortu izana era berezian ospatzeko asmoa ere badute. Maiatzean, Guardetxean bertan, *Burdina astintzen* jaialdia antolatuko dute, eta haien bildumako talde bat baino gehiago bilduko dute kontzertuan.

Kontzertuak dira, hain zuzen, Ortots zigiluaren diru iturri nagusia. Iñaki Esnaolak adierazi digunez, Ortotsen lehen lanak kaleratzeko haiek jarri behar izan dute dirua, eta orain, kontzertuak antolatuz berreskuratzen nahi lukete diru horren erdia, eta diskoak salduz, beste erdia. «Beste talde batzuk bultzatzeko adina diru aterako bagenu, hobeto».

Diskoetxe konbentzionalak

Esnaolak dioenez, ez dute musika taldeen kontura aberastu nahi. Ohiko diskoetxeekin bes-

te hainbat ezberdintasun ere badituzte. Esaterako, ez dute barra kodetun diskorik kaleratzen. Horregatik, denda askotan, ezin izango dituzte haien lanak saldu. Donostian, oraingoz, Parte Zaharreko Donosti-Rock dendan dituzte salgai Ortotsen plazaratutako lanak.

Hala ere, interneten hazkundea alde dute lagun hauek. «Gaur egun askoz ere errazagoa da pertsona batek interneteko atari bat bisitatzea, eta han zer eros dezakeen ikustea, denda bat bisitatzea baino». Hain zuzen, www.herrikoburdina.net helbidean Ortotsen lanei buruzko informazioa bildu dute. Lan horietako hainbat abesti ere entzun daitezke. «Gure erosle gehienek bide horretatik ezagutu gaituzte, eta kantak entzun eta gero erabaki dute erostea».

Altzairu gorria bildumako lehen bestia, gainera, Donostiako Azken Garraisa taldearena da. «Hira edo Asgarthen antza dute», dio Esnaolak. Donostiako eta Euskal Herriko makina bat talderekin lan egiteko irrikitan dago intxaurrendotarra, seinale litzatekeelako proiektu hasi berriak arrakasta handia izan duela.

TELEFONO ZENBAKIAK ▶

LARRIALDIAK

SOS Deiak **112**

Gurutze Gorria 943 222222
DYA 943 464622
Itsasoko Gurutze Gorria 943 431507
Farmaziak 943 429117
Suhiltzaileak 080

POLIZIA-TRAFIKOA

Ertzaintza 943 538606
Udaltzaingoa 092
Udal garabia 943 320658

OSASUNA

Larrialdiak 943 461111
Donostiako ospitaleak
▶ Amara 943 007400
▶ Arantzazu 943 007000
▶ Gipuzkoa 943 006000

GUARDIAKO FARMAZIAK ▶
GAUR

EGUNEZ (09-00-22:00)

▶ **M. E. Oteiza.** Serapio Mujika 8 (Bidebieta). 943 397156
▶ **X. Mendiaraz.** Karmengo Ama 4 (Egia). 943 327177
▶ **M. A. Arrasate.** Heriz pasealekua 16 (Antigua). 943 215877
▶ **E. Yurrita.** Narrika 23 (Parte Zaharra). 943 420649

GAUEZ (22:00-09:00)

▶ **M. L. Etxeberria.** Txurruka 5 (Erdialdea). 943 426224

BIHAR

EGUNEZ (09-00-22:00)

▶ **Taracena - Veliilla.** San Pedro hiribidea 51 (Trintxerpe). 943 390876
▶ **E. Zilbeti.** San Frantzisko 14 (Gros). 943 271627
▶ **A. L. Seminario.** Mikeleteen pasealekua 16 (Antigua). 943 317711
▶ **A. Iguain.** Triunfo kalea 2 (Erdialdea). 943 444561

GAUEZ (22:00-09:00)

▶ **M. L. Etxeberria.** Txurruka 5 (Erdialdea). 943 426224

▶ Psikiatria 943 007213
▶ Larrialdi orokorrak 943 007053
Poliklinika 943 309400

MATXURAK

Iberdrola 901 202020
Donosti Gas 943 445090/91
Naturgas 900 400523
Ur matxurak 943 481050

TAXIAK

Radio-taxi Santa Clara 943 464646
Vallina Teletaxi 943 404040
Radio Suita 943 396840
Radio-telefonoa 943 426642

GARRAIOAK

Renfe 902 240202
Eusko Tren 902 543210

ZINEMA ARETOAK ▶

TRUEBA (Sekundino Esnaola, 2. ▶ 943 271 391. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ **Mrs. Henderson presenta** (gaztelaniaz azpiztitulua) 17:00 19:45 22:00

▶ **Los tres entierros de Melquiades**

Estrada (gaztelaniaz azpiztitulua) 17:00
▶ **De fosa en fosa** (gaztelaniaz azpiztitulua) 19:45 22:00

ANTIGUO BERRI (Zarautz 1. ▶ 943 219120. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ **Transamerica** (gaztelaniaz azpiztitulua) 17:15 20:00 22:30
▶ **Volver** 17:00 20:00 22:30
▶ **Brokeback mountain** 17:00 19:45 22:15
▶ **Zathura, una aventura espacial** 17:30
▶ **En la cuerda floja** 19:30 22:15
▶ **Mrs. Henderson presenta** 17:15 20:00 22:30
▶ **La pantera rosa** 17:30 20:00 22:30
▶ **Memorias de una geisha** 16:45 19:30 22:15
▶ **El jardinero fiel** 17:00 19:45 22:15

BRETXA (Arrandegia eraikuntza. ▶ 943 421 371. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ **Date movie** 16:15 18:30 20:30 22:30
▶ **Sky High** 16:00 18:30
▶ **Thai dragon** 20:30 22:30
▶ **Destino final 3** 16:00 18:00 20:00 22:00
▶ **La pantera rosa** 16:00 18:00 20:00 22:00
▶ **Syriana** 17:15 19:45 22:30
▶ **Zathura, una aventura espacial** 16:00 18:15 20:15 22:15
▶ **Gisaku** 16:15 18:00 20:00
▶ **Las ultimas vacaciones** 22:00
▶ **El castillo ambulante** 16:45
▶ **Munich** 19:10 22:15
▶ **El nuevo mundo** 17:00 19:45
▶ **La fiesta del chivo** 22:30

PRINCIPE (San Joan, 10. ▶ 943 421 247. Ikuslearen eguna: asteazkena)

▶ **Transamerica** 17:15 20:00 22:15
▶ **La verdad oculta** 17:30 20:00 22:15
▶ **Crash** 17:30 20:00 22:30
▶ **Tristan e Isolda** 17:15 19:45 22:30
▶ **Orgullo y prejuicio** 17:00 19:30 22:00
▶ **Agua** 16:45 19:30 22:15
▶ **Volver** 17:00 19:30 22:15
▶ **Los tres entierros de Melquiades Estrada** 16:45 19:30

▶ **Cargo** 22:30
▶ **Buenas noches y buena suerte** 17:15 19:45 22:00
▶ **Truman Capote** 17:15 19:45 22:00

WARNER (Ilbilbe gunea. ▶ 943 308 170. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ **Crash** 17:15 19:30 22:00
▶ **Zathura, una aventura espacial** 17:15 19:45
▶ **Munich** 22:00
▶ **El castillo ambulante** 17:30
▶ **Thai dragon** 20:00 22:15
▶ **Brokeback mountain** 16:50 19:30 22:15
▶ **Volver** 17:00 19:40 22:15
▶ **Date movie** 18:00 20:00 22:15
▶ **La pantera rosa** 17:15 19:30 22:00
▶ **Tristan e Isolda** 17:00 19:40 22:15
▶ **Syriana** 17:00 19:45 22:15
▶ **Destino final 3** 17:30 19:45 22:15

CINEBOX (Urbilbe gunea - Usurbil. ▶ 943 376 557. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ **Thai Dragon** 18:30 20:30 22:30
▶ **Volver** 16:30 19:15 22:00
▶ **Memorias de una geisha** 19:00
▶ **La pantera rosa** 16:00 18:00 20:00
▶ **Destino final 3** 16:10 18:20 20:30 22:30
▶ **Date movie** 16:15 18:10 20:15 22:20
▶ **Brokeback mountain** 22:00
▶ **Syriana** 16:30 19:15 22:00
▶ **Bambi 2** 16:45
▶ **Tristan e Isolda** 16:45 19:15 22:10
▶ **El nuevo mundo** 16:15 22:00



Destino Final 3 filmaren irudia.

AGENDA ▶

GAUR (ASTELEHENA 20)

Mahai ingurua. *Moda: ¿quien marca la marca?* izenburupean, solasaldia. Fatima Ansola, Amaia Garmendia, Alex Navas eta Iñaki Valcarcel modan adituek parte hartuko dute. Fnac Forumean, 19:00etan.

Ipuina. Ipuinaren Ordua: *Ipuina ero-ero-eroak*, 5 urtetik gorako haurrentzat. Intxaurren Berrri kultur etxean, 18:00etan.

Ipuina. Ipuinaren Ordua: *Trilipuinak*, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat. Loiolako kultur etxean, 18:00etan.

Ikastaroa. Flauta ikastaroa, Magdalena Martinezek eskainia. Musikenen (Miramar Jaurregia), 12:00etatik 15:00etara eta 15:30etik 20:00etara.

Zinema. Fernando Musa zinemagilearen *Chiche Bombon* pelikula eskainiko dute, Kresala elkarteak antolatuta. Kutxaren Arrasate kaleko aretoan, 19:30ean.

Zinema. Robert Aldrich zuzendariaren *Doce del patibulo* filma eskainiko dute. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 18:45ean.

Zinema. Jean Pierre Jeunet zuzendariaren *Alien Resurreccion* pelikula eskainiko dute. Amara Berriko 27 Ordu zine klubean (Eustasio Amilibia), 20:00etan.

BIHAR (ASTEARTEA 21)

Mahai ingurua. *El derecho a la memoria* liburuari buruzko mahai ingurua. Felipe Gomez Isa liburuaren egileak, Marc Carrillo Zuzenbide Konstituzional irakasleak, Gaby Orek giza eskubideetan adituak eta



Ipuinaren Ordua Intxaurren Berrri eta Loiolara iritsiko da gaur.

Francisco Etxeberria mediku forentseak parte hartuko dute. Koldo Mitxelena kulturunean, 19:00etan.

Ipuina. Ipuinaren Ordua: *Hartatxo bezain ipuin bigunak*. 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, arratsaldeko 18:00etan.

Tailerra. Space-Blog sorkuntza tailerra. Groseko gaztekluban, 17:00etan.

Ekitaldia. Egiako Eraldaketa Sozialaren Astearen muralak margotuko dituzte, kontsumis-

moaz eta inmigrazioaz. Plaza Berrin, 18:30ean.

Ikastaroa. Flauta ikastaroa, Magdalena Martinezek eskainia. Musikenen (Miramar Jaurregia), 10:00etatik 14:30era.

Dokumentala. *La esperanza de Guatemala* eta *SIDA, la nueva cara del hambre en Malawi* dokumentalak. Fnac Forumean, 19:00etan.

Bideoa. *La frontera del Sur* zineko bideo emanaldia. Deustuko Unibertsitateko P. Arrupe aretoan, 13:30ean.

Zinema. *La marcha* filmaren

emanaldia, Arrazakeriaren Kontrako Astearen harira. Staff tabernan (Egia), 19:00etan.

Zinema. Blake Edwards zuzendariaren *La venganza de la pantera rosa* filma. 27 Ordu zine klubean (Eustasio Amilibia), 20:00etan.

Musika. Bosniako Ljiljana Butcher & Mostar Sevdah Reunion musika taldearen kontzertua. Egiako Gazteszenan, 20:30ean.

Musika. Nico Wayne Band blues taldearekin, *jam session* emanaldia. Altxerri tabernan, 20:30ean eta 23:00etan.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 46 72 36 - 647 319 761
donostia@irutxulokohitza.info



MOKO eta KARMELE ▶ MATTIN



HAU ASTELEHENA! ▶ ANDER USABIAGA

Badator zirkua

TXINATIK, ORAINGOAN. Hilaren 29an Txinako Zirkua Nazionala iritsiko da Donostiara, eta apirilaren 17ra arte egongo da gure artean. Gainerako zirkuek egin ohi duten bezala, honek ere, haren burua ezagutarazteko, hamalka bide erabiliko du. Kontuak kontu, guzti-guztietan, euskara erabili beharko luke; zirkua lurzoru publikoan jarriko dute, eta udal araudiak halako kasuetarako dioenez, «idazki, iragarki eta kartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera». Azken hilabeteotan Donostiara etorritako zirkuetako bakar batek ere ez du araua bete, gaztelania hutsez idatzitako kartelak josi baitute denek hiria. Udalak, hala ere, ez omen du ezer ikusi. Bada begiak irekitzeko garaia, ezta?

BEGIAK ZABALIK. Begiak irekiz gero, oso zaila izaten delako zirkuen kartelak ez ikustea. Handiak eta ikusgarriak izaten baitira. Badaezpada, Batzen elkarrekin ohartarazi egin ditu udal arduradunak. Hortaz, egunotan, Txinako Zirkua Nazionalak kartelak, iragarkiak eta antzekoak jartzen baditu, haietan




Zirkuek gaztelania hutsez jarri ohi dituzte iragarkiak Donostian. NAGORE IRASORZA

euskara ikustea espero dugu. Bestela, euskarari buruzko udal ordenantzek gainerakoek baino gutxiago balio dutela pentsatu beharko genuke. Eta horrek pailazorik gabeko zirkua batek baino grazia gutxiago du...

MAGIA KONTUAK. Bisita garaia omen da. Joan den astean Espainiako printze-printzesak Donostian izan ziren. Espainiako monarkiaren bisitaldian jendetzak — protestan, ikusmiran, txaloka... — ikustea tentazio handia izan ohi da. Eta joan den ostiralean, komunikabideren bat hori irudikatzen saiatu zen. Bisitaren ekitaldi nagusira, ordea, 200 herritar inguru hurbildu ziren — batzuk alde; beste batzuk kontra—. Zirkua ari ginen lehen. Eta zirkua ilusionistak ere baditu.

BESTELAKO MAGOAK. Beste bisita bat, Bartzelonarena. Haiek ere 200 bat lagun mugiarazi zituzten Maria Cristina hotel inguruan. Hori bai, denboraldi honetan, Anoetara inoiz baino jende gehiago joan zedin lortu zuten. *Veni, vidi, venci.* Horixe egin zuten Bartzelonakoek, azkar eta estuegi ibili gabe. Realak ahalegina egin zuen arren. Eta etzi, Iruñera. Gorriak ez ikusteko, gorritxoel punturen bat kendu behar zaie.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Karlinhos Marroi.
 Zorionak Simusmai!
 Ondo pasa.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6) • Tel.: 943 423100
- ▶ FOTO MIKI (Matia kalea 3) • Tel.: 943 214703
- ▶ KATTAGORRI argazki denda (Larraboko pasealekua 26) • Tel.: 943 390160
- ▶ DAM arropa denda (Narrika 23) • Tel.: 943 424567
- ▶ EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9) • Tel.: 943 277102/943 292557

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...